

# Goi

Goierritarra aldizkaria

400 zenbakia 2011ko maiatzak 6



**PILOTAN  
ESPERIENTZIA  
ETA  
ETORKIZUNA**

AINHOA RODRIGUEZEN ETA  
AINHOA ESNAOLAREN ERRONKA

**ZINEMA  
ADIERAZPEN  
TRESNA**



**ALTAMIRA**  
JATETXEA



Altamiran kirola eta elikadura uztartzen ditugu egunero-egunero. Gorputza zaindu eta aisaldiaz gozatuko duzu GURE EGUNEKO MENUA DASTATUZ.

Altamirako kirolgunea / Ordizia  
T. 685 794 755 / [altamira@igen.net](mailto:altamira@igen.net)



FBKTOO





Nafarroa etorb. 25 - 2.  
Tel.: 943 08 55 60  
Faxa: 943 08 55 61  
**BEASAIN**

**Analisi eta erreabilitazioa:**  
Garmendia Otaola, 2-behea

**Especialista eta zerbitzu ugari**  
Pediatria, Ginekologia, Dermatologia  
Traumatologia, Dietetika eta nutrizioa

...

**Zaindu zure osasuna. Etor zaitez!**  
[www.consultoriomedicobeasain.com](http://www.consultoriomedicobeasain.com)



*Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:*

*I. Fdez Or naburu Dra.  
(Medikuntza estetikoan masterra)  
A. Ramirez Baigorri Dra.*

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU  
ultrasoinuen bidez

**NOBEDADEA**


**ULTRASHAPE** CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitita, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

*Kursal*  
**ZENTRO MEDIKUA**  
[www.kursal.es](http://www.kursal.es)

**943 88 22 51**

Garmendia Otaola, 7 - behea  
**BEASAIN**





Joxepa Madariaga

Politikaz hitz egin behar diagu, Iñaxio. Politikaz, hauteskunde kanpainan gaudek eta. Laster herrietako udaletako agintariak aukeratuko dizkiagu. Lau urterako alkate eta zinegotziak.

Makina bat buruhauste izan diate alderdi guztiek ere zerrendak osatzerakoan: batzuek “anima apartatuta ganadua bezalaxe” markatuta zeudenez ezin zutelako, beste batzuek nahi ez zutelako, hainbatak “fidatzekoak” ez zirela-

ko, gazteak eta emakumeak animatzea zail zelako... Larri ibiliak dituk alderdi asko herri askotan. Baina estutasunak estutasun, zerrendak osatzea lortu dutenen berri badiagu. Bakoitzak bere herrian eta ingurukoetan osatu diren taldeen eta hautagaien zerrendak aztergai dizkiagu.

Oraindik sorpresak izan dikeagu, zoritxarrez oso ohitua gauden sorpresak jaso dikeagu, halako taldetako zerrenda baliogabetu dutela... Justizia deritzonak berekin duen injustiziaren ondorioz guk ezin jakin oraindik, ziur, zein hautagai izango ditugun. Egoera grabea izan arren, momentuz alhora utzi eta udal hauteskundeetan izaten dudan jarrera azalduko diat: udal hauteskundeetan alder-

## Alderdi politikoei ez, baizik eta pertsoneri ematen zieat nik botoa udal hauteskundeetan.

di edo taldeen siglen aurretik pertsonak hautatzen dizkiat. Halako kidek konbentzitzen nauenez, langilea, euskaltzalea, hitzekoa, fin eta jator jokatzeko duena denez, ezagutzen dudanez eta konfiantza ematen didanez, herria gidatzeko oniritzia, botoa emango zioat. Karguduna izan gabe, kirolean, kulturean, eskolan, koadrilan... nire ustez jator portatu ez denari, nekez emango zioat botoa, nahiz eta gustuko dudan alderdi politikoko ordezkari izan. Alderdi politikoei ez, baizik eta pertsoneri ematen zieat nik botoa udal hauteskundeetan.

Bestalde, emaitzak emaitza, intentzio onez lanerako prest agertu diren guztiak zoriondu nahi dizkiat. Baita lanerako prest izan, baina aurkezten utzi ez dituztenak ere.

Hik azaldu dun heure jarrera eta egokia dun, baina, gauzak parekotik parekora baleude solamente. Gaur gaurkoz, bistakoa denez, ez zeuden. Batzuk aurkezterik izango duten ere ez baitzekiten. Hau al dun demokrazia? Hala bada, niregatik bota dezatela *zerri askara!* Izan ere, hori dun triste: jendeak, ondo kostata bada ere, zerrenda batean joateko hitza eman eta ezin joana. Gure seme-alabei nola azaldu behar zienagu hau demokrazia dela? Nola bere aitak, amak, izebak, osabak edo lehengusuak ezin badu bere herriaren alde lanean aritzeko aurkeztu?

Bazirudinan egoerak hobera egingo zuela azken mugimenduak ikusita, baina, egunak aurrera joan ahala, ez din on itxuririk! Hau horrela dela, lehentasunak galdera hau pizten zidan neure barnean: egoera honi herri bezala nola erantzun? Eta hortik ere ez dinat, ba, bidea oso argi ikusten. Esaterako, Iñigo Urkulluk “Bilduk zerrendak ondo zaindu behar lituzke” (Berria, 2011-04-27) esanez laguntzen din eta Aintzane Ezenarrok, bere aldetik, “Kritikatzeaz gain eta kontraktasuna agertzeaz gain, ez dakit zer gehia-

## Lehentasunak galdera hau pizten zidan neure barnean: egoera honi herri bezala nola erantzun?

go planteatzen duzun egin zitekeenik” esaten zionan Berriako kazetariari joan den igandean.

Hona iritsita, Victor Alexandre idazle kataluniarra aipatu behar dinat eta, bide batez, haren liburu bat aholkatu. Hark dioenez, Espainiaren **cerrazón** delakoaren aurrean, ez dinagu zertan etengabe geure burua justifikatzen ibili: horretan darabilgun denbora baitun juxtu geure existentziari kentzen ari garena. Parean daukagunak ez baitin gu ulertzeko intentzio txikiarik ere. Mendeko eduki nahi gaitin. Ondorioz, izan gaitezen nor. Eta nor izateko independentzia behar-beharrezkoa dugula zion Alexandrek.

Gatazkaren berri ematen zigun bere liburuko izenburuaren lehen zatia *‘Hitza hormaren kontra’* eta azpititulua konponbiderako giltza *‘Independentzia ez da pribilegioa’*.



Inazio Usarralde

**GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:**

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia



**Argitaratzailea:**  
Goierriko Hedabideak S.L:  
**Urbialde plaza, 7 - behea**  
**BEASAIN**

**Posta elektronikoa:**  
goierritarra@goierrikohitza.info  
**Telefonoak:**  
**Erredakzioa:** 943 16 00 56  
**Publizitatea:** 647 319 775  
**Harpidetzak:** 902 820 201

**Zuzendaria:** Loinaz Agirre  
**Maketazioa:** Mikel Albisu

**Inprimaketa:** Gertu  
**ISSN:** 1132-0907  
**Lege gordailua:** SS-926/89

**GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística

Pertsonak gure adiera ugarietan oso desberdinak garen bezala, posible da ama (eta ama ona) modu askotara izatea. Alegia, ama ez dela bakarra.



*Idurre Eskisabel Larrañaga*

## Ama ez da bakarra

**A**intzanek hartu duen erabakiarekin asaldatuta hurbildu zait Ainhoa. Ez zaio buruan kabitzen ama izan berri den emakume osasuntsu batek titia emateari uko egitea. Aintzanek ez omen du ahaleginik txikiena ere egin; Unai jaiio berriari titi-burua hurbildu ere ez. Aitzitik, esnearen igoera eragozteko pastila eskatu bide du erditu eta segituan, aurrez erabakita zeukan bezala. "Baina ez al da konturatzen haurrari oinarritzko eskubide bat ukatzen ari zaiola? Ez al da ohartzen txikiaren osasun fisiko zein psikikoaren kontra ari dela? Zer uste du, horrela ez zaizkiola titiak hondatuko? Osasun arazorik ezean umearen eskubide bat da bularra hartzea eta ez amaren aukera bat. Egoista bat da", bota dit bero-bero.

Zer esan asmatu ezinik geratu naiz, kikildu egin bainaute hainbesteko irmotasunak eta eskubide-betebeharren arabera-ko planteamendu horrek. Leunago etorri izan balitz esango nioke baietz, ni ere harritu egin naizela Aintzanek proba txikiena egin gabe hartu duelako erabakia, baina, tira, era berean, uste dudala bularraz gain hamaika mila modu daudela haur bati elikagaia eta maitasuna emateko, eta badirela edoskitzearen *gaitzuztienkontrakotasuna* erlatibizatzen duten ikerlari eta medikuak, eta Aintzanek eta haren bikotekideak pentsatu dutela aita umearen hazkuntzan gehiago inplikatzeko modua izan daitekeela biberioia ematea. Eta arrazoi horien gainetik, jakin badakidala Aintzanek onena nahi duela Unai txikiarentzat eta helburu hori duela iparrorratz.

Ez da aurreneko aldia Ainhoaren eta Aintzaneren artean bitartekari sentitzen naizela, Lokarri-renak egiten bi laguneren arteko ika-mikan. Izan ere, orain marmarrean etorri dena Ainhoa izan bada ere, Aintzane ere paretsu ibili da beste batzuetan. Justu kontrakoa da Aintzanek ulertzen ez duena: Ainhoak oraindik titia nahi erara ematea bi urte erdiko Uxue koxkortuari, haurtzaindegira ez eramatea, harekin lo egitea, eta, batik bat, bere punturik onenean zegoen ibilbide profesional distiratsua bazter utzi eta etxeko lanak hartzea dedikazio bakartzat. "Ez al da konturatzen umeak ez direla titiarekin bakarrik hazten? Gaur egun diru asko behar dela seme edo alaba bati behar duen guztia emateko? Egin kontu jatekoa zein garesti dagoen, eta arropa, eta etorkizunera begira heziketa on

bat eman behar badiozu, pentsa zein gastu egin behar diren: ordenagailua, ingelesa... Eta ez hori bakarrik, norbera... Norbere burua zaintzea inportantea da. Eze, nola emango diozu ume bati maitasuna zure buruarekin gustura ez bazau-de? Ez al zara konturatu Ainhoa zeinen pipertuta egoten den askotan? Zuk ez al duzu triste sumatzen?", izan ohi da Aintzaneren erretolika.

Sorbaldak jasoz erantzun izan diot, adieraziz neuri ere ulerzteko zailak egiten zaizkidala Ainhoaren zenbait erabaki, baina, era berean, ez dudala uste umeen zoriona ongizate materialarekin bermatzekin denik; edo inor norbere buruarekin gustura egoteko etxetik kanpora lan egitea eta bizitza profesional distiratsua izatea ezinbesteko baldintza direnik. Areago, seme-alaben zaintza –eta, oro har, maite dituzun etxeko horiena– izan daitekeela norbere buruarekin pozik egoteko bide bat. Eta bai, Ainhoa pipertuta egoten dela askotan, baina ziurrenera, ingurukook egiten ari den lan hori gutxiesteak baduela eragina ernegatze horretan.

Azken batean, agertu nahi izan diet nire ustez pertsonak gure adiera ugarietan oso desberdinak garen bezala, posible dela ama (eta ama ona) modu askotara izatea. Alegia, ama ez dela bakarra.

Areago, tentatuta nago Aintzane eta Ainhoa kafe baten bueltan elkartzera eta amatasunaren inguruko eztabaida mingotsa bere gordinean bultzatzera. Izan ere, bi laguneren arteko mokoka pertsonal gisa bizi dugun hori gizarte auzi sakon baten isla delakoan nago, gizarte antolaketaren oinarriari eragiten dieten arazo eta ereduak ari baitira planteatzen biak: umeen zaintza (eta, oro har, etxearena eta etxekoena), lan munduaren atontzea eta andrazkook horretan guztian izan behar dugun parte-hartzea –bidenabar, aitortu behar dut haurren zaintzan aiten ausentzia sekularrak sortutako triskantza azpimarratuko duen korronte psikologikoaren zain nagoela–.

Tamalez, ordea, auzi pribatu eta pertsonala balitz bezala bideratzen dugu hau guztia, eta gure arteko ika-miketan galten ditugu indarrak. Ea lortzen dudan kafe horren bueltan Aintzanerekin eta Ainhoarekin amatasunaren dimentsio publikoaz ohartarazteko ekintzaile taldea sortzea.

# Energia nuklearrari stop!

Martxoaren 11n, Japonian izandako ikaragarriko lurrikara eta tsunamiaren ondorioz, hildako eta desagertutako ugari izan da. Baina horrez gain, Fukushimako zentral nuklearrean izandako hondamendiak kalte ugari sortu du, isurpen erradiaktiboak tartean, ehun mila pertsonatik gora beren bizilekuetatik mugiaraziz.

Horren ondorioz, energia nuklearraren erabilpenari buruzko eztabaida handia ireki da mundu mailan. Baina eztabaida hori zentral nuklearraren segurtasunari buruzkoa izaten ari da gehienbat, segurtasun hori hobetu daitekeela azpimarratuz eta energia horren erabilera klima aldaketaren aurkako borrokan beharrezkoa dela aldarrikatuz. Aitzitik, badira fisio nuklearraren bidezko energiaren aurkako arrazoi eta azterketa ugari, hamarkadetan egindakoak, eta istripuen arazora mugatzen ez direnak:

- 1 – Nahiz eta istripurik ez gertatu, fisio nuklearreko zentralak etengabeko arriskua eragiten dute, izan daitekeen arma nuklearraren gehikuntzarengatik eta, batez ere, sortzen dituzten hondakin erradiaktiboen tonengatik, batez beste, ehunka eta batzuetan milaka urtetako bizitzarekin. Horrela, arazo larri bat sortzen da, bost hamarkadatan konpondu ez dena eta epe motzeko interesaren izenean, hurrengo belaunaldiei, pozoitutako ondarea uzten zaie.
- 2- Funtzionatzen ari direnean



ez dute CO2rik isurtzen eta horrela ez dute berotegi-efektua sortzen. Baina uranio minerala erauzi eta zentrala eraikitzen hasten denetik eraitsi arte, sortzen den CO2a ez da zentral termiko batek sortutakoa baino askoz gutxiago.

- 3- Bestetik, mundu mailan energia nuklearraren ekarpena eskasa da, % 6a. Gainera, energia nuklearraren aldeko apustua egiteak, mundu mailan milaka zentral eraikitzea ekarriko luke, ikaragarriko kostua eraginez, hondorik ez duen diru-laguntza publiko itzelak behartuz. Horregatik ez dago enpresa pribaturik diru-laguntza publikorik gabe, zentral nuklearrak eraikiko dituenik.

- 4- Uranio minerala baliabide ez berriztagarria da eta petrolio bano urriagoa. Jeremy Rifkin, The Foundation on Economic Trends erakunde buruak, gogorarazten digu, gaur egun martxan diren 500 zentralekin, uranio gabezia, hogeitun urte baino lehen izango dela.

Beraz, zentral nuklearrak ez dira klima aldaketaren aurkako alternatiba energetikoa eta epe motzean ezin ditugu "mix" energetikoaren barnean zenbatu: garestiegiak eta arriskutsuegiak izateaz gain, behar dituzten mineral-baliabideak urriegiak dira.

Edonola ere, gure eredu energetikoa aurrezpena, efizientzia eta energia garbien erabilpenean oinarritutako eredu jasangarriarengatik ordezkatzeko garaiz gaude. Garaiz gaude eta badakigu nola egin. "Nuklearrik ez, eskerrik asko" ez da lelo boluntarista eta inozoa, ondorio arrazionala da, azterketa sozio-zientifiko globalean oinarritua.

*Edurne Huesa Otegi  
Iturria: Educadores por la  
sostenibilidad*

## JAKIN BEHARREKOAK

### Gipuzkoako 14 alkate eta Natura 2000 Sarearen kudeaketa:

Hauen artean Ataungo, Beasaingo, Idiazabalgo, Lazkaoko eta Segurako alkateak Natura 2000ko Sareko naturguneak Babes Bereziko gune izendatzeko prozesuaren aurka azaldu dira. Hori dela eta, Gipuzkoako elkarte konserbazionista gehienek, Ingurumen sailburuari Natura 2000 Sareko prozesua bultzatzeko idatzia bidali diote. Informazioa hemen: <http://ieoe.blogspot.com/>

### GREENPEACEko zuzendari berria, Miren Gutierrez donostiarra:

aurretik Juantxo Lopez de Uralde donostiarrak utzitako hutsunea betetzera dator. Donostiar kazetaria nazioarte mailan Hong Kong, New York, Erroman eta Panaman 'El Pais' eta 'Wall Street Journal' egunkariarentzat lan egindakoa da, baita IPS agentzia eta "Mar Viva" Fundazioko albiste arduradun izandakoa.

**2011 urteko hegaztia,** mozolo arrunta (Athene noctua) aukeratu du SEO/BirdLife erakundeak. Espainian zegoen mozolo arruntaren kopurua, % 40-an murriztu da azken hamarkadan. Adituen ustez, gaur egun 50.000 bikote besterik ez da gelditzen. Hegazti gautar honentzat mehatxurik garrantzitsuenak landa eremuen uztea eta laborantza intentsiboak dira.

 **landarlan**  
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisterrak bat bidali nahi baduzu:  
☎ 943161244 landarlan@yahoo.es

**Badira fisio nuklearraren bidezko energiaren aurkako arrazoi eta azterketa ugari, hamarkadetan egindakoak, eta istripuen arazora mugatzen ez direnak.**



## Jolastu eta jokatu

Maizpide euskaltegia

**Jolastu** aditza maizegi erabiltzeko joera dugula dirudi eta, gehienetan, ez oso txukun! Zuzen ote dago esanda ondorengo esaldia?

- *Gaur goizean futbolean jolastu dut, Eneko!*

Bada, ez! Futbolean **jokatu** dut behar du, lehiaren bat dagoenean, zerbait jokoa dagoenean... halaxe behar duelako!

**a) Zertan?** Saskibaloian jokatu (=aritu), xakean jokatu (=aritu)...

**b) Zer?** Dirua jokatu, etxea jokatu, futbol partida jokatu...

**Jolastu**, berriz, umek (eta baita ume ez direnek ere!) egiten dute, inolako lehiarik ez dagoenean:

*Panpinekin, robotarekin, sokasaltoan...* jolastu!

Gogoratu, bestalde, **jolastu** esateko badugula bestelako biderik: **jolasean aritu, jolasean ibili, jolasean egin...**

Eta beste zalantza bat: **jolastu naiz** ala **jolastu dut**?

Bada, lehenengoa da zuzena! Gogoratu, halere, arestian aipatutako baliokideen artean, Goierri aldean maiz erabiltzen dugun '**jolasean egin**' aukeratzuz gero, honek ez duela izan ametitzen. Beraz:

<b>Jokatu</b>	<b>Dut</b>
<b>Jolastu</b>	<b>Naiz</b>
<b>Jolasean aritu</b>	<b>Naiz</b>
<b>Jolasean ibili</b>	<b>Naiz</b>
<b>Jolas egin</b>	<b>Dut</b>

Aupa Goierri! Hara nola egiten dudan jolas!



Lazkaoko jaietan ikasi omen zuen gure Txurik...

### ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Ze, Josune, jolastuko dugu pilotan?
2. Etorri, Arkaitz, Nerearen mekanoarekin jolastuko duzue eta!
3. Noren aurka jokatuko dute Zegamako bertsolariek hurrengo kanporaketa?
4. Lehen Mailako futbol jokalariek askok "gaizki jolasten dutela" onartzen dute.
5. Jolas pixka bat egingo al dinagu, neska? Bero-beronagon!

**OHARRA:** Lehenengoa, *jokatuko dugu*; bigarrenkoa, *jolastuko zara edo egingo duzu jolas* (Goierri aldean askoz egokiagoa); laugarrenkoa, *gaizki jokatzen dutela*. Hirugarrena eta bosgarrena zuzenak dira!

**Pottoka**  
K A F E T E G I A

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3    ORDIZIA    ☎ 943 16 03 04

**zuhazki**  
Zurgingindia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskaierak neurria.

**JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ**

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55  
Cuatrovientos Industrialdea, 1  
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

**kutxa**



## Josu Landa



### “Denok jakin beharko genuke lekaleak, barazkiak eta arraina prestatzen”

Ezkioko Argindegi ostatuko sukaldaria da Josu Landa. Ezkio-Itsasoko Udalak eta Yartu Elkarreak antolatuta, 11 urtetik gorakoentzat sukaldaritzaren ikastaroa antolatu dute. 3 egunetan, ordu eta erdiko lau saio egingo dituzte. 9 lagunek eman dute izena eta apirilaren 28an egindako lehenengo saioaren ondoren hitz egin dugu Josu Landarekin. Hurrengo hiru saioak, maiatzaren 21ean, ekainaren 11n eta ekainaren 18an izango dira.

**Zer moduz joan da lehenengo saioa?**

Beraiek esan beharko dute baina ni gustura gelditu naiz.

**Zein adinetako gazteak gerturatu dira?**

11-18 urte artekoak.

**Zenbaterik hartuko dute parte?**

Bederatzik.

**Zein da ikastaro honen helburua?**

Oinarrizko platerak prestatzen erakutsi eta sukaldaritzara gerturatzeari.

**Zer egin duzue lehenengo egunean?**

Makarroiak bolognar erara, eta urdaiazpiko eta arrautza krocketak.

**Bukatutakoan jan egin al dituzue?**

Banatu egin ditugu etxera eramateko, ikastaroa 11etan bukatu da-eta.

**Txikienei gustatzen zaie sukaldatzea, baina askotan helduok ez dugu pazientziarik hartzen.**

Hori da. Suarekin kontuz ibili behar da baina asko gustatzen zaie.

**Beste saioetan zer erakusteko asmoa daukazue?**

Arrainen bat labean eta saltsan. Azkeneko egunean, postre pare

bat erakutsiko dizkiet, gazta tarta eta pantxineta seguruenik.

**Lehenengo aldia da haur eta gazteei sukaldaritzaren ikastaroa ematen diezuna?**

Bai, lehenengo aldia da. Niretzako ere berria izan da baina poliki-poliki hobetzen joango gara.

**Noiz erabaki zenuen sukaldaria izan nahi zenuela?**

16 urterekin..

**Txikitik gehiena gustatzen zitzazun platera?**

Arroza, arrautza eta tomatearekin.

**Eta gutxiena?**

Arraina.

**Gaur egun gehiena gustatzen zaizuna?**

Arraina.

**Postre bat:**

Gazta tarta.

**Edari bat:**

Txakolina.

**Denok prestatzen jakin beharko genituzkeen hiru plater:**

Lekaleak, barazkiak eta arraina.

**Etxean inoiz falta ezin dena?**

Patatak.

**Sukaldaria izango ez bazina...**

Soldeadore.

**Zaletasun bat:**

Musika elektronikoa.

**Uharte bakarti batera zer eramango zenuke?**

Neska-laguna.

**Amets bat:**

Baserri bat edukitzea.



Ainhoa Rodriuez eta Ainhoa Esnaola,  
I. Beasaingo Film Laburren lehiaketaren antolatzaileak:

# “Gazteek, euskaraz, teknologia berriak erabiliz, talde lanean, ondo pasatzea lortu nahi dugu”

**E**ginez ikastea. Lelo horixe da Akkua eta taZEBa ez enpresako Ainhoa Rodriguez eta Ainhoa Esnaolaren filosofia. Proiektu hezitzaileak sortzea dute helburua eta kasu honetan, zine mundua hartu dute aitzakia, eta “jende gazteari modu hezitzaile batean motibazioa sortzea” nahi dute. Beasaingo Udalak bat egin du Rodriguezen eta Esnaolaren asmoekin eta hortik sortu da Beasaingo Film Laburren lehiaketa.



**BEASAINGO  
FILM LABURREN  
LEHIAKETA**

INFO+OINARRIAK: [beasaingofilmlaburrenlehiaketa.wordpress.com](http://beasaingofilmlaburrenlehiaketa.wordpress.com)  
KONTAKTUA: [filmlaburrenlehiaketabeasain@gmail.com](mailto:filmlaburrenlehiaketabeasain@gmail.com)  
JASOTZE MUGA: maiatzak 23  
2000€tan BALIOZTATUTAKO SARIAK

Logos: akkua, ZEBAZ, Beasaingo udala, GIB, la Caixa, hitza, XERBERA, GOI, SC, TOLESA, DOLERA, LEGAZPI PAINTBALL

Irunen, Mondragon Unibertsitatean, Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza (LEINN) izeneko gradua ikasten ari dira. Sarritan, trenez egiten dute eskolarako bidea. Tren bidaia horietako batean sortu zitzaizen Beasainen, Film Laburren Lehiaketa egiteko ideia. Beasaingo Udalarari proiektua aurkeztu, ondo iruditu eta aurrera egin dute ideiarekin. Urtebete daramate proiektua lantzen. Maiatzaren 23a izango dute egindako lanaren uzta jasotzeko ordua. Egun horretan bukatuko baita Film Laburren lehiaketan lanak aurkezteko epea.

Helburu ezberdinak ditu Film Laburren lehiaketak. Laburbilduz, honokoak dira: euskaraz, teknologia berriak erabiliz, talde lanean ondo pasatzea. Horiekin batera, zinea, adierazpenerako tresna bezal erabiltzea. "Pentsatzen edo sentitzen duguna adierazteko modu da zinema. Gazte guztiok zaletasun ezberdinak ditugu baina denoi gustatzen zaigu adieraztea. Modu ezber-

## “Zerbait esateko edo adierazteko daukan gazte orok har dezake parte”

Nortzuk har dezakete parte Beasaingo Film Laburren lehiaketan?

Zerbait esateko edo adierazteko daukan gazte orok. Askotan eman digute aukera bertsoz, idatziz edo poesiaren bitartez adierazteko baina beti esan digute irudi batek mila hitz baino gehiago balio dituela. Filmatuz edo marraztuz ere adierazi ahal daitezkenak.

**Euskara, teknologia berriak, talde lana... Gazteei erakargarri egiten al zaizkie arlo horiek?** Nork ez du noizbait koadrilarekin bideo bat grabatu, ordenadorera pasa eta gero ikusi eta barre egin? Zergatik ez eman hurrengo pausoa eta holako lehiaketa batean parte hartu? Gazte guztiok ditugu afizio desberdinak baina denok dugu adierazteko zeozer. Lipdub-ei buruz ez dugu oinarrietan idatzi baina horiek ere sartuko lirateke. Azkenaldian, dezente egin dira.

dinetara, baina adieraztea. Ildo horretatik, jende gaztea zine mundura hurbildu nahi dugu, beste aukera desberdin bat proposatzen diegu, taldean lan egitearen garrantzia, teknologia berriak erabiltzea, euskara edo hitzik gabeko hizkuntzan adieraz ahal izatea. Beraien lanak kalean ikusteko aukera eskaintzen

“Nork ez du noizbait koadrilarekin bideo bat grabatu, ordenadorera pasa eta gero ikusi eta barre egin? Zergatik ez eman hurrengo pausoa eta holako lehiaketa batean parte hartu?”



## Finlandiako eredu


Mondragon Unibertsitateko 'Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza' (LEINN) gradu lehen promozio ikasleak dira Ainhoa Rodriguez eta Ainhoa Esnaola. "Finlandiar irakats medotoan oinarrituta dago. Gure leloa, 'learning by doing' da, eginez ikatea, horregatik joan ginen Finlandiara, hango unibertsitatera bi hilabetez ikastera. Proiektuak eginez ikasten dugu", diote beasaindarrek.

Enpresa sortu eta berehala Finlandiara joan ziren. "Han 15 urte daramatzate ikas modu honekin. Lehenengo promozioak gara eta ez genekien zertaz zen. Lan eta proiektu ezberdinak egiten ditugu eta izaten dituzten irabaziekin, bidaia formatiboak egiten ditugu. Esate baterako, apirilean Amerikako Estatu Batuetan izan gara enpresa ereduak ikusten. Beste mundu bat da hura", gaineratu dute.

Karrera berria da LEINN, "enpresaritzaren antzekoa, baina era praktikoa ikasita", dio Rodriguezek. "Hasiera-hasieratik, bi enpresa sortu genituen, Akkua eta taZEBa. Lau urterako taldeak dira. Talde lanean egiten dugu. Bi enpresa hauek, proiektu desberdinetan lan egiteko aukera eman digute; Irungo Pin-ean, feste antolaketan, Real Madrilarekin ere kolaboratu dugu eta beraien udalekuetan lan egin dugu, MCCrentzat sustapen-bideo bat egin dugu. Gure enpresek guri ikasteko aukera ematen digutenez, gure helburuetako bat, proiektuak hezitzaileak izatea da".

Beasaingo Film Laburren lehiaketarekin ere asko ikasi dute. Hutsetik hasi behar izan dute eta urratsaz urrats egin behar izan dute. "Zaila baina polita izan da. Askori gara ikasten", aitortu dute.

Ikasteko metodo polita iruditzen zaie. Gustura daude eta lana egitea ez zaie kostatzen, nahiz eta askotan ordu extrak sartu behar izaten dituzten. Azterketa gutxi izaten dituzte gainera.





dugu, ekainaren 24-25ean". Azken batean, "gazteentzako proposamena da Beasaingo Film Laburren lehiaketa. Mundu hau gustuko duten euskal gazteak elkartu nahi ditugu, eta zaletasun honetaz denok gozatu ahal izatea. Esperientzia poltta dela uste dugu", diote Rodriguez eta Esnaola beasaindarrek.

## Bi maila

Bi maila edo atal izango ditu lehiaketak: batetik, Ikasleen saila deitua (Beasaingo ikastetxeetako 3. eta 4. DBH eta batxilergoko ikasleentzat); eta bestetik, Gazteen Saila (Euskal Herriko 18-29 urte bitarteko edozein gazteentzat).

DBH eta batxilergoko ikasleei dagokienean, ikastetxeetan bertan lantzeko ekintza bezala proposatzen dute. "Ikasleek taldean lan eginez eta teknologia berriak erabiliz laburmetraia bat sortu behar dute, lehiaketara aurkeztuz. Film laburra egiteak bi atal lantzea dakar; non ikasle bakoitzak bizitzako prozesua deskribatu behar duen eta zati digitala, non talde lana eta landutako gaitasunak aztertu daitezkeen, lanaren aurkezpena kontuan hartuta beti ere", diote lehiaketaren antolatzaileek.

Beasaingo ikastetxeekin hitz egin dute Rodriguezek eta Esnaolak eta aurtengo edizioan, La Salle eta Loinazpe ikastetxeek parte hartuko ziurtatu dute. Datorren urteetan, Beasaingo ikastetxe gehiagok parte hartzea nahi-

ko lukete eta litekeena da Goierriko mailara ere zabaltzea lehiaketa.

## Sariak

Gazteentzat motibagarriagoa izatearren, film laburrak erakutsi egingo dira Beasainen. San Juan inguruan, ekainaren 24an eta 25ean, Bideluze plazan izango da lehiaketara aurkeztutako lanak ikusteko aukera.

Sariei dagokienean, 2.000 eurotan balioztatuko sariak jasoko dituzte. Dolarea, Xerbera, Kikara eta Batzokia tabernek, Legazpiko paintball-ak, Tolosako karting-ak eta Bareak-ek emango dituzte sariak.

Epaimahaia, zinemaren inguruan aritzen direnek osatuko dute. "Epaimahi hetero-ogenoa izango da", diote. Besteak beste, Goienizekoek eta Eñaut Tolosa zinemagileak. Ainhoa Rodriguezek eta Ainhoa Esnaolak ere parte hartuko dute. Euskara arloan lanean dabilenik ere izango da epaimahaian.

Sariak erabakitzerakoan kontuan zer hartuko duten galdetuta, honokoa erantzun digute: "oinarriak betetzea bai baina, lan batek zerbait sorraz diezaigula. Sentimendu bat, mezu bat. Sormena eta irudimena, talde lana, soinu eta irudi ona izatea eta euskara baloratuko dira".

## Animatu

Rodriguezek eta Esnaolak Lehiaketan parte hartzera animatu nahi dituzte goierritar gazteak. Aukera ona dela

## Oinarriak

<http://beasaingofilmlaburrenlehiaketa.wordpress.com/> webgunean daude I. Beasaingo Film Laburren lehiaketaren xehetasun guztiak. Zalantzarik izanez gero, antolatzaileekin harremanetan jar zaitezke.

- ✓ Film laburrak formatu digitalean aurkeztu behar dira, soinuarekin edo gabe.
- ✓ Gaia eta generoak libreak dira.
- ✓ Gehienez 15 minutu luzatu daitezke.
- ✓ Beharrezkoa: kalitatezko soinua (edukiz gero), kalitatezko irudia, historia bat.
- ✓ Talde edo autore bakoitzak film laburra bakarria aurkeztu dezake.
- ✓ Aukeratutako film laburrak Katalogoan azalduko dira eta proiektatuak izango dira sari banaketaren egunetan.
- ✓ Film labur bakoitza DVD-an aurkeztu beharko da, zuzendariaren edo ekoizlearen NAN zenbakiarekin eta inskripzio fitxarekin (e-mailez bidali).
- ✓ Aurkeztutako lan guztiak euskaraz egon behar dira.
- ✓ DVD formatuan eta CD-anhelbide honetara bidali behar da: Akkua eta taZEBaEz. Hendaia kalea, 8 (Ducorau jauregia). 20301 Irun.
- ✓ Lanak bidaltzeko azken eguna: maiatzak 23.
- ✓ Epaia: ekainak 24-25.
- ✓ Sariak: Gazteen sailean, 3 sari eta Ikusleen saria; Ikasleen sailan, 2 sari, Ideia hoberenaren saria eta Ikusleen saria.
- ✓ Informazio gehiago: <http://beasaingofilmlaburrenlehiaketa.wordpress.com/>
- ✓ Harremanak: [filmlaburrenlehiaketa@beasain@gmail.com](mailto:filmlaburrenlehiaketa@beasain@gmail.com)

**Bi maila edo atal izango ditu lehiaketak: batetik, Ikasleen saila deitua (Beasaingo ikastetxeetako 3. eta 4. DBH eta batxilergoko ikasleentzat); eta bestetik, Gazteen Saila (Euskal Herriko 18-29 urte bitarteko edozein gazteentzat).**

diote. "Adierazteko modu berri bat da. Futbola gustatzen bazaizu, talde batean apuntatzen zara eta futboleko jokatu duzu. Edo idaztea gustatzen bazaizu, idazlan lehiaketan parte hartuko duzu. Afizio ezberdinak daude, baina zine munduan sartzeko ez dago aukera askorik. Askotan koadrilan sortzen dira bideoak baina horretan gelditzen dira. Guk beste pauso bat ematea proposatzen dugu. Argazki elkar-teak badaude baina zinema

arloan ez dago gauza handirik, ez zaio bultzadarik ematen. Beste ate bat ireki nahi dugu. Arlo hori gustatzen zaien ala ez probatu dezatela", zehaztu du Ainhoa Rodriguezek.

"Beti esan izan zaigu irudi batek mila hitzek baino gehiago balio dutela. Saiatu daitezela, sentitzen dutena elkarbanatzea, zerbait polita sortzea. Guk aukera emango dugu erakusteko. Hori bera sari polita da", gaineratu du Ainhoa Esnaolak.



Unai Garmendia eta Iker Iribarria pilotariak:

# Esperientzia eta etorkizuna

**P**ilota bi era ezberdinetan bizi duten bi goierritar elkartu ditugu. Unai Garmendia legorretarak 26 urte ditu eta gorputzak uzten dion bitartean, pilotan gozatzen jarraitu nahi du. Iker Iribarria aramarrak 14 urte ditu eta orain artean bezala jarraitzen badu behintzat, etorkizun oparoa izan dezakeen pilotaria da. Berria pilota txapelketan, Amezketako Zazpi Iturri taldean parte hartu dute biek eta Berria txapela irabazi dute.



Unai Garmendiak eta Iker Iribarriak, Berria saria irabazi berri dute Zazpi Iturri taldearekin. Kadete, jubenil eta nagusien mailako hiru bikote izaten dira talde bakoitzean. Unai Garmendia nagusien mailan aritu da eta Iker Iribarria kadeteetan. Garmendiaren esperientziaren eta Iribarriaren ilusioaren lekuko izan gara Aramako pilotalekuan egin dugun solasaldian. Berria txapelketari erreposoa eginez hasi gara.

**Amezketaren izenean, Zazpi Iturri taldearen izenean aritzen zarete biok.**

**Unai Garmendia:** Elkarrekin entrenatzen dugunok osatzen dugu taldea. Herriarteko talde batzutan gertatzen da, klub ezberdinetan dabilzan pelotariak nola edo hala elkartu eta taldea osatzea. Hemen behintzat, ia denak elkarrekin aritzen gara entrenatzen.

**Pilotariok gustuko duzuen txapelketa al da Berriarena?**

**Iker Iribarria:** Oso txapelketa polita da bai. Galtzea edo irabaztea ez dago norberaren esku bakarrik. Taldean jokatzeko dugu.

**Garmendia:** Azken batean, guk herriartekoa jokatzeko aukerarik ez daukagu eta antzekoena den lehiaketa da. Herriartekoaren antzekoa da baina badu berezitasunik: bi gazteek irabaziz gero, partidu guztietako tanteoak hartzen dira kontuan. Alegia, nahiz eta aurreneko bi partiduak 22-21 irabazi, zaharrenek 22-4 galduz gero, beste taldeak irabaziko du. Bi taldeetako gazteek, partidu bana irabaziz gero, handien partidua irabazten duenak irabazten du. Azken batean, nagusien mailako partiduei interes pixka bat emateagatik hartu dute tantoak kontatzeko erabakia.

**Gainerakoan, zein txapelketa duzue gustuko?**

**Iribarria:** Elgetakoa. Lau t'erdikoa izaten da. Iaz oso ondo ibili nintzen, eta aurten ikusi egin behar. Aurten maila handia dago. Unai badauka ni entrenatzen lana.

**Garmendia:** Maila horretan, txapelketarik onena da. Denek

nahi izaten dute baina egun bat txarra edukitzea nahikoa da, helburua pikutara joateko. Txarra izaten da horrekin obsesioztatzea. Egun txar bat edonork eduki dezake. Hori bai, irabaziz gero, ateak zabaltzen dira.

**Iribarria:** Elgetan irabazita, Diario Vasco lehiaketan sartzeko aukera daukazu. Titinen txapelketa Errioxan... Elgetan nabarmenduz gero, aukera gehiago izaten da beste txapelketa batzuetara joateko.

**Garmendia:** Horrelako txapelketetan egoten dira enpresetako begiraleak.

**Zuk Unai, horrelako txapelketaren batean parte hartu al duzu?**

**Garmendia:** Ni atzelaria naiz, baldar horietakoa, eta lau t'erdian ahalik eta gutxiena jokatu dut. Binaka jokatu izan dut. Nire garaian jokatu nuen behin. Partidu bat irabazi eta bestea galdu egin nuen. Beti binakan ibili naiz.

**Zu Iker, aurrelaria zara. Banaka gustura ibiltzen zara?**

**Iribarria:** Binaka baino zailagoa da, baina politagoa ere bai. Lau t'erdian erasotzeko errazagoa da, baina defenditzeko ere komerik izaten dira. Biziagoa da Lau t'erdia. Indarra bakarrik ez da behar, taktika ere behar da, burua erabili behar da.

**Garmendia:** Konzentrazio handia eskatzen du. Lau T'erdian konfiantza eduki behar da.

**Elgetako txapelketa duzu beraz helburu.**

**Iribarria:** Helburua bai baina ez baldin bada ondo ateratzen, datorren urtean ere hor egongo da.

**Amezketan entrenatzen duzue beraz. Eskola ona al dago?**

**Garmendia:** Ni Legorretan hasi nintzen Pelota eskolan. Herriarteko talde bat sortzeko eskola sortu zuten. Urtebete egin eta osabaren bidez, 15 urterekin, Amezketan sartu nintzen. Harrezkerotik han jarraitzen dut entrenatzen.

**Iribarria:** Ni Ordizian hasi nintzen eta txapelketa hau ateratzeko, esan zidaten, noizbehinka deituko zidatela entrenatzera



## Etorkizunaz, hankak lurtean

Iker Iribarria gaztea da oraindik baina orain arteko bere pilota ibilbidean, nabarmentzen ari da. "Figura da", deskribatu du Unai Garmendiak. Hitz onak ditu Garmendiak Ikerrentzat, baina zortea ere beharko duela dio. "Horrela segitzen badu, Ikerrek badu bidea. Progresio honekin jarraitzen badu, aukera ikusten zaio, lesiorik ez baldin badauka behintzat", gaineratu du.

Hankak ordea, lurtean ditu Ikerrek. "Etorri behar bada etorriko da. Orain artean ondo nabil baina orain artekoak ez du balio, pixkanaka joan behar dut. Orain artekoak badu garrantzia baina hemendik aurrerakoak gehiago. Partidu garrantzitsuetan destakatzeko ez baduzu, zaila daukazu. Merituak eginez gero, lortzeko aukera hor dago. Baina parrandak ere hor daude...", gaineratu du. "Orain adin kritikoa dauka Ikerrek. 16-18 urterekin parrandak hasten dira. Gogorra egiten da askotan. Besteak parrandan dabiltzanean, etxean gelditzea, gogorra da"

Momentuan, motibaziorik ez zaio falta aramarrari, etxeko sei apaleko bitrina kopaz beteta baitauka.

### Zortea

Dena den, argi daukate biek, profesioletara iristeko, zorte handia beharko duela. "Bi enpresa daude eta ona izanagatik ez bazaie gustatzen, ez zaituzte kontratatuko. Entxufeak ere hor dago. Azkenean, zortea da", dio Unai.

Amezketara joateko. Noizbehinka joaten naiz Amezketara. Bestela, Ordiziara joaten naiz.

**Garmendia:** Txikitan hainbesteko garrantziarik ez du baina adinean aurrera joanda, klubaren arabera partidu gehiago lortzeko aukera izaten da, entrenatzeko ere jende hobe... azken batean dena lotuta dago. Hobetzeko ere aukera hobe izaten da klub handi samarretan. Hori bai, norberak egin behar izaten du gero.

**Iker zuk zeuk, Ordizian aritzen zara. Zer moduzko maila dago Ordizian?**

**Iribarria:** Txarra ez dago. Nire adineko hiru pelotari gabiltza. Gazteagoetan ere bost bat badaude. Baina txikietan oso jende gutxi dago. Bat Legorretakoa, Tolosakoa, Beasaingoa... baina ordiziarra bakarra dago. Pelota goxoarekin ibiltzen direnean badabiltza baina aurrera doazen heinean, jendeak pelota utzi egiten du.

**Garmendia:** Ordizia eta horrelako tokietan gertatzen da futbolak indar handia duela. Pelota indibidualagoa da eta pelotan jarraitzea gogorragoa egiten da.

**Iribarria:** Kirol aukera handia dago: futbola, errugbia, saskibaloia... Azkeneko muturrean pelota dago.

**Pilota ez al dago modan?**

**Iribarria:** Herri txikietan gehiago.

**Garmendia:** Telebistak bonboa ematen dio, baina ez dakit jendea ez ote den nazkatzen ari. Bonboa badauka baina beste gauza bat da pelotan aritzea. Futboleant, lagunartean aritzea errazagoa da. Pelotan, takoak jantzi eta denbora asko behar da.

**Pelotalekua herrian bertan daukazue. Pelotalekuan hazitakoak al zarete?**

**Iribarria:** Hiru urterekin dagoeneko pelotalekura etortzen nintzen. Orduak pasatakoa naiz.

**Garmendia:** Aita Baliarraingoa da eta hasi-hasi, Baliarrainen hasi nintzen frontoi txikian.

**Profesionalerako saltoa eman duen azken goierritarra Albisu ataundarra izango da.**

**Garmendia:** Horrela segitzen badu, aukera handiak ikusten zaizkio.

**Iribarria:** Itxura ona dauka. Lesiorik ez badu izaten, eskuak lagun izaten baditu...

**Gaur egun profesionalerara iritea ez dago erraza.**

**Garmendia:** Ni Frontis enpresan ia hiru urte egin nituen. Krisiarekin ateak itxi zituen eta berriz ere behera.

**Krisia ere iritsi da beraz pilotara.**

**Garmendia:** Orain arte, bi enpresa indartsu eta hiru-lau enpresa txiki zeuden. Orain, bi indartsuak gelditu dira, baina beraiek ere langileen kopurua murriztua dute. Lehen 35 pelotari zituzten plantillan eta orain 20-25.

Enpresa txiki guztiek ateak itxi dituzte. Hor gora igotzeko, zailagoa dago. Aimar-eta oraindik gazteak dira. Orain, 18 urterekin hartzen dituzte. Figura izan daitezkeenei debutatu arazi, bi-hiru urtean balio ez duena etxera bidali eta beste 18 urteko bat hartzen dute. Jendeak kolpe handiak hartzen ditu. 18 urterekin debutatzeko aukera bai baina arriskutsua da. Afizionatuetan orain, izen handi asko azaltzen hasi dira. Profesionaletan egondako asko daude.

**Eskuak dira pelotarion lan tresna. Lan handia ematen al dute?**

**Iribarria:** Trapua jarriz gero ez dago arazorik.

**Garmendia:** Nik garrantzia horri ematen diot, eskuak ez izorratzeari. Trapua jarri eta eskuak babestea izaten da nire helburua.

**Iribarria:** Askotan barre egiten dugu zenbat trapu jartzen dugun. Baina garrantzitsua da hori.

**Garmendia:** Bakoitzak bere metodologia bilatu beharra dauka. Batzuk gutxiarekin nahiago izaten du. Bakoitza mundu bat da.

**Esperimentatzen aritzen al zarete?**

**Garmendia:** Bai. Gehiago, gutxiago... Baina txapelketa bakoitza klub batek aukeratzen du eta pelota ezberdinak jartzen ditu. Batzuk, berri-berriak izaten dira, beste batzuek oso gastatuak... Takoekin asmatzea oso zaila izaten da. Bakoitzak pelota jotzeko bere era dauka eta pelota jokatzeko era horrek takoak jartzeko era bat eskatzen du. Mundu bat da.

**Iribarria:** Kadeteetatik jubeniletara pelotak aldatu egiten dira eta jubeniletan, kadeetako takoekin ezin da jolastu. Gehiago jarri behar da. Kalkulatu egin behar da tako edo espadradapoa gehiago jarri.

**Garmendia:** Neurria hartzen uste baino denbora pasatzen da.

Txikienak desiatzen egoten dira takoak jartzeko.

**Iribarria:** Eta gu, nazkatuta dagoeneko.

**Garmendia:** Takoak jarrita, ikaragarri jokatzeko dela iruditzen zaie.

**Zein pelota mota aukeratzen duzue?**

**Iribarria:** Toke asko duena. Normalean ni izaten naiz indarra daukana eta gehiena ateratzen dena. Besteak indar gehiago baldin badauka, motelagoa aukeratzen dut. Baina normalean, fuertea.

**Garmendia:** Nik, denbora pixka bat ematen didana eta ahal dela, karga pixka bat eduki dezala.

**Batzuk kontua erabiltzen dute peloten gaiarekin.**

**Garmendia:** Guri, lau pelota jartzen dizkigute eta horiek jokatzeko dugu, ez daukagu aukeratzeko pribilejiorik. Alde bateatik, hobe, bestela izango litzateke zalaparta.

**Iribarria:** Azkenean, ona dena, pelota guztiekin da ona. Hobeto datorkizula pelota bat ala bestea, bai, baina edozein pelotarekin jokatu behar da. Guri lau pelota jartzen dizkigute eta nahiz eta patatak izan edo Polizia Nazionalaren pelotak izan, berdin-berdin jokatu behar dugu. Ez dago besterik.

**Pilotaz gain, beste kirolik egiten al duzue?**

**Garmendia:** Pelota bakarrik.

**Iribarria:** Saskibaloian ere jokatzeko dut.

**Momentu bat iritsiko da aukeratu behar izango dena.**

**Iribarria:** Niri gertatu zait pelotarekin eta saskibaloiarekin. Datorren urtean saskibaloian ere jokatuko dut baina

utzi egingo du. Bi kirolean ondo ibiltzen zarenean, bat aukeratu behar duzu, bietara ez zarelako ondo iristen. Pelota aukeratu dut.

**Erabakia erraza izan al da?**

**Iribarria:** Ez hain erraza. Saskibaloiko lagunak uzteak pena ematen dizu. Euskadiko Selekzioan aritu naiz eta pena ematen du lagunak uztea. Baina pelotan ere nahikoa lagun dauzkat eta moldatuko gara.

## “Zortea behar da profesionalerara iristeko”.

UNAI GARMENDIA.

## Saskibaloia edo pelota aukeratu behar izan du.

IKER IRIBARRIA.





## Unai Garmendia

Legorretarra, 26 urte, 1,90 metro.  
Nagusien mailan jokatzeko du.

### Zure ezaugarria:

Ezergatik ez dugu nabarmendu. Pilako horietako bat. Segi eta segi hortxe gabiltza. Gorputzak aukera ematen duen bitartean, etsitzen ez duena.

### Hobetzeko zer daukazu?

Nik hobetzeko gutxi. Dakidana erakustea.

### Helburua edo ametsa:

Ahal dena aguantatzea.

### Pelotaleku bat:

Labriten-eta jokatu dut, baina Amezketakoarekin gelditzen naiz. Bertan entrenatu eta jokatu izan dut eta Amezketakoarekin gelditzen naiz.

### Maniarik bai?

Nik ez daukat maniarik.

### Txapelak eta kopak non gordetzen dituzu?

Nik askorik ez daukat baina txapelak, kiroletako poltsa batean sartu eta armarioan gordeta dauzkat. Kopak, lau edo bost politenak bistan eta beste guztiak kaja batean sartuta.

### Zaletasun bat:

Ondo jan eta ondo lo eginez gero... nahikoa.

Di-da



## Iker Iribarria

Aramarra, 14 urte, 1,85 metro.  
Kadeteen mailan jokatzeko du.

### Zure ezaugarria:

Ezkerra naiz. Aire eta gantxo nahiko ona. Hori bai, makala. Altuera honekin badakizu.

### Hobetzeko zer daukazu?

Abiadura, teknika hartzea, posturak, eskubi bolea... Dena daukat hobetzeko.

### Helburua edo ametsa:

Dena ikusi behar da. Indarra etortzen zaizun... Ametsa-ametsa, profesional bat izatea da. Bestela, helburua, ondo pasatzea eta hobetzen jarraitzea da.

### Pelotaleku bat:

Gutxi probatu ditut, baina bat, Adarraga.

### Maniarik bai?

Sakea ateratzerakoan 4 bote ematen ditut beti.

### Txapelak eta kopak non gordetzen dituzu?

Kopak britinan dauzkat. Sei apal ditu eta dena beteta dago. Garbitzen izaten dira komeriak. Txapelak, hautsa ez hartzeko plastikokoan bilduta dauzkat, armarioan.

### Zaletasun bat:

Mendirra joatea asko gustatzen zait.

Jabekideen komunitatea osatzea  
 Komunitateen kontabilitatea  
 Akten idazketa  
 Aurrekontuen eskaera  
 Aholkularitza legala  
 e.a.

  
**AUZOKI**  
 Komunitateen administrazioa  
 Kol. Zenb. 599  
 Urdaneta 52-behea  
 ORDIZIA  
 Tel.: 943 087 486


**xetai**  
 diseinuzko altzari eta sukaldeak  
[www.xetai.net](http://www.xetai.net)  
 nafarroa etorbidea 1, solairuartera - 20200 beasain

## Ordizia

### Erdi Aroko azoka

#### Maiatzak 7, larunbata:

**11:00etan:** Barrena Kultur Etxetik, azokako segizioaren desfilea: Juglaren kalejira, zaldunak, errege segizioa, Musika Eskolako banda, eta Urdaneta eta Jakintza dantza taldeak. Plaza Nagusian azokari hasierako emateko deia. Azokako saltokiak zabalduko dira. Beira puzten, hargintza, forja-lana, larruginak, ehoziariak. Zeramika-tailerrak, birziklapena, idazketa, ohiko jolasak. Falkoneria erakustaldia. Euskal Okeleko txahala burruntzian erreko da.

**12:00etan:** Pilotaleku txikian arku-tiraketa.

**13:00etan:** Andre Maria kalean (Torrea etxean), zaldi-ferraketa.

**17:00etan:** Barrena Kultur Etxetik, azokako segizioaren desfilea: Juglaren kalejira, zaldunak, errege segizioa, Musika Eskolako banda, eta Urdaneta eta Jakintza dantza taldeak. Azokako saltokiak zabalduko dira. Beira puzten, hargintza, forja-lana, larruginak, ehoziariak. Zeramika-tailerrak, birziklapena, idazketa, ohiko jolasak.....

**18:30etan:** Andre Maria kalean (Torrea etxean), zaldi-ferraketa

**18:30etan:** Beti Argi Banda, Laguntasuna errondaila eta 'Larrun-Arri' abesbatzaren saioak.

**19:00etan:** Nikolas Lekuona Plazan, Euskal okela txahalaren dastaketa.

**21:00etan:** Plaza Nagusian, Euskal Herriko ipuin eta elezharren kontaketa.

#### Maiatzak 8, igandea:

**11:00etan:** Azokako saltokiak zabalduko dira. Beira puzten, hargintza, forja-lana, larruginak, ehoziariak. Zeramika-tailerrak, birziklapena, idazketa, ohiko jolasak.....

**11:30etan:** Barrena Kultur Etxetik, azokako segizioaren desfilea: Juglaren kalejira, zaldunak, errege segizioa eta parte hartzaileak.

**12:30etan:** Andre Maria kalean (Torrea etxean), zaldi-ferraketa. Pilotaleku txikian arku-tiraketa. Falkoneria erakustaldia.

**17:00etan:** Azokako saltokiak zabalduko dira.

**17:30etan:** Barrena Kultur Etxetik, azokako segizioaren desfilea.

**18:30etan:** Andre Maria kalean (Torrea etxean), zaldi-ferraketa.

## Ezkio-Itsaso

### Ezkioko San Migel jaiak

#### Maiatzak 6, ostirala:

**20:00etan:** Txupinazoa eta kanpaikadak.

**20:30etan:** Rock kontzertua: 'Segobiako hiesa' eta 'Zaborrak'.

#### Maiatzak 7, larunbata:

**11:00etan:** Fronteniseko finala.

**12:00etan:** Toka herrikoia eta igel jokia.

**17:00etan:** Mus txapelketa.

**17:00etan:** Ume jolasak.

**17:30etan:** Ginkana. Altxorraren bila.

**18:00etan:** Pinata.

**19:00etan:** Txokolate jana.

**21:00etan:** Herri afaria eta dantzaldia 'Gari eta Iñaki' trikitilariekin.

**01:00etan:** Dj R-Kanuto.

#### Maiatzak 8, igandea: San Migel eguna:

**10:00etan:** Zumarraga eta Urretxuko txistulariak.

**11:00etan:** Meza Nagusia.

**12:00etan:** Zeraingo eta Ezkio-Itsasoko abesbatzen kontzertua.

**12:30etan:** Goruntz taldeko dantzariak.

**18:00etan:** Herri kirolak: Zaldua-Elorriaga Ugarteburu-Larrañagaren aurka.

**19:00etan:** Barrikotea eta saskiaren zozketa pilotalekuan.

## Lazkao

### Lazkaomendiko jaiak

#### Maiatzak 7, larunbata:

**10:00etan:** Lazkaomendiko XXXVI. Jubenilen mailako txirringulari lasterketa.

**16:30etan:** Potxin eta Patxin pailazoen emanaldia.

**18:30etan:** Imuntzo eta Beloki trikitilarien emanaldia.

**21:00etan:** Auzo afaria.

**23:00etan:** Erromeria trikitilariekin.

#### Maiatzak 8, igandea:

**08:30etan:** Lazkaomendiko ibilaldi neurtua. Irteera plazatik.

**11:00etan:** Meza Nagusia San Juan Ante Portam Latinam udal agintarien partaidetzarekin.

**11:30etan:** Haur jokoak, Lazkaotxiki musika eskolako trikitilariekin eta Oin Arin dantza taldearekin erromeria. Ondoren, Mañukorta eta Zeberio bertsolarien emanaldia.

**17:30etan:** Herri Kirolak. Azurmendi-Atutxa II eta Arrospide-Mugerza II aizkolariak; eta Iñaki eta Inazio Perurena harrija-sotzaileak.

**Ondoren:** Asto lasterketa.

**19:00etan:** Bertsolariekin eta Ansorregi eta Larrañaga trikitilariekin erromeria.



## ibaiondo

altzariak

- barne diseinua
- dekorazioa
- sukaldeak
- proiektuak

Katea, 5 - Antzizar auzoa  
**BEASAIN**  
 tel.: 943 16 40 40  
 faxa: 943 16 47 47  
 mug.: 639 631 640

[www.mueblesibaiondo.com](http://www.mueblesibaiondo.com)



## Beasain

## Maiatzeko ekintzak

**Maiatzak 12, osteguna:**

**19:00etan:** Hitzaldia: 'Emakumea eta giza eskubideak gerra zibilean eta lehen frankismoan'. Igartza jauregian.

**Maiatzak 13, ostirala:**

**22:00etan:** Antzerkia: Pikor teatro taldearen XL Town. Usurbe antzokian.

**Maiatzak 17, asteartea:**

**18:00etan:** Bertsolaritza eta ahozketasuna. Usurbe antzokian.

**Maiatzak 18, asteaskena:**

**09:00etan:** Hitzaldia, 'Moda diseinatzailerean lana', Migdalako Maialen Olano. Udal Euskaltegian.

**Maiatzak 19, osteguna:**

**17:30etan:** Hitzaldia. 'Sare sozialak', Juan Arbuluren eskutik. Udal Euskaltegian.

**18:00etan:** Bertsolaritza eta ahozketasuna. Usurbe antzokian.

## Ardo azoka

Bareakeko Anzizar, Arrano, Basakana, Batzokia, Blues Brothers, Hiruarri, Jalki, Kuluska, Osinbeltz, Plazape, Usurbe eta Xerbera tabernek, II. Ardo azoka antolatuta du. Maiatzak 6tik (18:30etik 21:30era) 8ra (12:30-14:30 eta 18:00-21:30) izango da. Kale Nagusian 12 upategietako ardoa dastatzeko aukera izango da.

## Marlon Brando eta Paul Newman Goienizen

Goienizen 'Begirada' sailean Marlon Brando eta Paul Newmanen bi filma emango dituzte, Usurbe antzokian bi ostegunetan, 21:00etan.

**Maiatzak 5:** 'La ley del silencio', Elia Kazan zuzendariarena, Marlon Brando aktore dela.

**Maiatzak 12:** 'El buscavidas', Paul Newman protagonista duen Robert Rossen-en filma.

## Beasain

## Bigarren eskuko merkatu txikia

Iazko abenduan izandako arrakasta ikusirik, bigarren merkatu txikia antolatuta du Andramendi Ikastolak, maiatzaren 6tik 7ra. Plaza azpian izango da. Bertan liburuak, etxeresnak, arropa (haur eta helduentzat), jostailuak, pitxiak (ordulariak, eraztunak, pultserak, koilarak...) salduko dira. Azokaren ordutegia honakoa da: maiatzaren 6an 17.00etatik 21:00etara eta maiatzaren 7an 11.00etatik 21:00etara.

Berrerabilpena sustatzea; kontsumo iraunkorra eta arduratsua helburu hartuta, beste kontsumitzeko era bat posible dela eta gauzak berrerabilitzeko filosofia bultzatu nahi dute Andramendi ikastolakoek.

## Irakurle Taldea sortzeko deia

Beasainen ere Irakurle Taldea sortzeko asmoa du Udalak, Euskara Biziberritzeko Planaren Barruan. Lehenengo saioa, maiatzaren 26an, arratsaldeko 7etan, egingo da Xabier Mendiguren idazlearen 'Sakoneta' liburua oinarri hartuta. Solasaldian parte hartzeko, beharrezkoa da 'Sakoneta' liburua irakurtzea. Tertulia prestatzeko dena den, maiatzaren 19an bilera egingo da. Irakurle Taldean parte hartu nahi duenak maiatzaren 6a baino lehen eskura dezake 'Sakoneta' liburua, Udaletxeko Kultura-Euskara sailean. 943028063 telefonoan edo ebpn@beasain.net helbidean ere eska liteke.

## Legorreta

## XI. Dantzari Txiki Eguna

Igande honetan, maiatzak 8, XI. Dantzari Txiki Eguna ospatuko da Legorretan. **11:00etan**, Dantzari guztien bilkura Legorretako Korta eta Zapas Enparantzan. **12:00etan**, Nafarroako *Areso*, Beasaingo *Aurtzaka*, Ordiziako *Jakintza*, Zaldibiako *Iztueta* eta Legorretako *Irrintzi-Alai* dantza taldeek herriko auzoetan dantza egingo dute. **13:00etan**, Enparantzan dantza taldeek dantza desberdinak egingo dituzte, besteak beste 'Ikurrin Dantza' eta 'Aureskua'. **16:30ean**, 'Segi jotzen!' pailazo emanaldia Herri Zinemaren.



kudeaketa

fiskala

Tel 943 88 44 00

Faxa 943 80 51 27

[www.biokzerbitzuak.com](http://www.biokzerbitzuak.com)

Ordizia Urdaneta, 7

z e r b i t z u a k

kontablea

merkatala

laborala

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

## Goierri

### XX. Txiste eta pasadizo idatzien lehiaketa

Goiztiri AEK-k, Ordiziako Udalaren laguntzarekin, XX. Txiste eta pasadizo idatzien lehiaketa antolatu du aurten ere. Bertan parte hartu ahal izateko baldintzak hauek dira: 16 urte edo gehiago izatea; eta txiste edota pasadizoak euskaraz (batuaz edo euskalkiaz) idatziak izatea. Txisteak eta pasadizoak, maiatzaren 25a baino lehen bidali behar dira Ordiziako 116 posta kutxara. Posta elektronikoz ere bidal daitezke ondoko bi helbideotara: [beasain@aek.org](mailto:beasain@aek.org) edo [ordizia@aek.org](mailto:ordizia@aek.org).

AEKko ikasleak izango dira epaileak. Hiru sari banatuko dira: 1. saria, DVD eramangarria; 2. saria MP5-a eta 3. saria, Zumaiako Zelai talasoterapiari zirkuitua, otordua barne, bi pertsonentzat.

### La Serradako jardunaldiak, Irriargi elkartearen eskutik

#### Maiatzak 14, larunbata:

**10:30ean:** Gaia: 'Sistemas educativos que respetan el continuum: la clave para desterrar el fracaso escolar y vital'. Hizlaria: Davis Pla. Beasaingo Berritsu ludotekan.

## Segura

### Antzerkia eta kantaldia

Maiatzaren 6an, 19:30ean, 'Maddi Lagunekin' taldearen kantaldi laburra eta 'Eta Karmele?' antzezlanaz izango dira Segurako Botikaxahar kulturgunean. Antolatzaileak Elorri elkarte eta Iparra Hegoa dira.

## Idiazabal

### Sukaldaritza ikastaroa

Maiatzaren 14n, 21ean, 28an eta ekainaren 4an sukaldaritza ikastaroa burutuko da Arretxe elkartearen. 10:30ean hasi eta 12:30ean bukatuko dira, Javi Sanchez sukaldariak emango dituen ikastaldiak. Izena maiatzaren 12a aurretik eman behar da eta informazio gehiago nahi duenak udaltxerara jo dezake.

## Goierri

### XX. Lazkao Txiki Bertsopaper lehiaketa

Uztailaren 1ean bukatuko da, Argi Berri elkarteak antolatutako XX. Lazkao Txiki Bertsopaper lehiaketan parte hartzeko epea. Nahi adina bertsopaper bidal daitezke. Ohi bezala, hiru maila izango ditu lehiaketak:

#### Gaztetxoan maila: 13 urte artekoentzat.

Gutxienez 2 eta gehienez 4 bertso idatzi beharko dira. Neurria eta doinua libreak dira, ez ordea gaia. 'Nik euskaraz, zuk zergatik ez?' izango da gaia. Hiru sari banatuko dira: lehenengoarentzat, 200 euro; bigarrenarentzat 100 euro eta 3.arentzat 50 euro.

#### Gazteen maila: 14-18 urte artekoentzat.

Gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso idatzi beharko dira. Gaia, neurria eta doinua libreak dira. Sariak: lehenengoarentzat 300 euro; bigarrenarentzat 200 euro eta hirugarrenarentzat 100 euro.

#### Helduen maila: 1992an edo aurretik jaiotakoentzat.

Maila honetan ere, gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso idatzi beharko dira eta gaia, neurria eta doinua libreak dira. Sariak: lehenengoarentzat 500 euro; bigarrenarentzat 400 euro eta hirugarrenarentzat 300 euro.

Lanak, Ordiziako Argi Berri Elkartera bidali behar dira (Gipuzkoa kalea, 15-behea. 20240 Ordizia). Sari banaketa, irailaren 11n egingo da Ordiziako Euskal Jaiei barruan.

## Gabiria

### Kultur Astea

#### Maiatzak 7, larunbata:

**16:30ean:** Goierriko Eskola Txikien festa.

#### Maiatzak 8, igandea: Jubilatuta eguna:

**12:00etan:** Meza Nagusia. Ondoren, Goruntz dantza taldeak saioa eskainiko die.

**14:00etan:** Bazkaria Osinalde elkartearen, herriko bertsolariz eta musikaz alaitua.

#### Maiatzak 12, osteguna:

**19:00etan:** Dominikar Errepublikako bizipenak Leire Muruaren eskutik, Kultur Etxean.

#### Maiatzak 14, larunbata:

**17:00etan:** Balantzategi Herri eskolako emanaldia saloian, abesti, bertso eta antzerkiz osatua.

#### Maiatzak 18, asteazkena:

**19:00etan:** 'Flysch haitzen hitza' dokumentala.



Etorri gure  
ate irekietara!maiatzak 11  
16.00etan

IMK Arkaute - IMK Derio - IMK Fraisoro - IMK Pasaia

## Natura lanbide?

## Zatoz Itsasmendikoirra!

Nekazaritza eta itsas-arrantzarekin  
erlazionaturako lanbideetarako  
prestakuntza praktikoa  
eskaintzen dizugu.

www.itsasmendikoi.net



## ERDI MAILAKO ZIKLOAK

## GOI MAILAKO ZIKLOAK

IMK ARKAUTE  
(ARABA)

- LORAZAINTZA ETA LORADENDA
- NEKAZARITZA EKOIZPEN EKOLOGIKOA

- NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO ENPRESEN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA

IMK DERIO  
(BIZKAIA)

- LORAZAINTZA ETA LORADENDA
- NEKAZARITZA EKOIZPEN EKOLOGIKOA

- NATURA ETA PAISAIA BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA

IMK FRAISORO  
(GIPIZKOA)

- LORAZAINTZA ETA LORADENDA
- NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO PRODUKZIOA

- NATURA ETA PAISAIA BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA

## ERDI MAILAKO ZIKLOAK

## GOI MAILAKO ZIKLOAK

IMK PASAIA  
(GIPIZKOA)

- ARRANTZA ETA ITSAS GARRAIOA
- ITSASONTZIETAKO MAKINEN ETA INSTALAZIOEN OPERAZIOA, KONTROLA ETA MANTENTZE-LANAK

- NABIGAZIO, ARRANTZA ETA ITSAS GARRAIOA
- ITSASONTZIETAKO MAKINEN ETA INSTALAZIOEN IKUSKAPENA ETA KONTROLA



## Egin harpidedun

GOIERRITARRA   
urtean 29 euroHITZA   
urtean 70 euroGOIERRITARRA+HITZA   
urtean 75 euro

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K.:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia:

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

## Ordizia

### Maiatzeko ekintzak

#### Maiatzak 7, larunbata:

**10:00etan:** Euskal Herriko Argazkilari Taldeen elkartearen asanblada, Ortzadar Argazki Elkartek antolatuta.

#### Maiatzak 9, astelehena:

**18:00etan:** Musika Eskolako ikasleen udaberriko kontzertuak, Barrena Kultur Etxean.

#### Maiatzaren 10etik 27ra:

'Akuarelak', Estatuko akuarelisten talde erakusketa, Barrena Kultur Etxean.

#### Maiatzak 10, asteartea:

**19:00etan:** 'Cuidadores' dokumentalaren emanaldia, Herri Antzokian, 'Zu zara giltza' programaren barruan. Sarrera, dohainik.

#### Maiatzak 11, asteazkena:

**14:15ean:** Ezkio-Itsasoko Haritzizabal baserrian, 'Mermelada ekologiko' tailerra. Antolatzailea: Goierriko Goiztiri AEK. Izen ematea: 943889174.

#### Maiatzak 13, ostirala:

**17:30ean:** Herri Antzokian, Urdaneta dantza taldearen emanaldia.

**20:30ean:** Fiziozko Film Labur Onenaren Goya saria irabazi duen Maria Reyes Ariasen 'Una caja de botones' laburmetrairearen aurkezpena. Bertan izango da Maria Reyes. Sarrera doan, gonbidapenekin. Gonbidapenak Barrenan jaso behar dira.

#### Maiatzak 14, larunbata:

**17:00etan:** 'Meategietako jolasak', Plaza Nagusian. Antolatzailea: Hitzaro Euskara Elkartea.

**????n:** 'Ellas bailan solas' kale antzerkia, Picor taldearekin. 'Zu zara giltza' programaren barruan.

#### Maiatzak 17, asteartea:

**19:30ean:** Camera Raw tailerra, Barrenan, Ortzadar Argazki Elkartek antolatuta.

## Goierri

### 'Ehunmilak' etapetan

Uztailaren 15, 16 eta 17an Ehunmilak eta Goierriko 2 Haundiak proben bigarren edizioa burutuko da, Arrastaka Mendi Taldeak antolatuta. Proba honetako ibilbide osoa ezagutu eta gozatu nahi dutenentzat, baina kasu honetan oinez, Arrastaka Mendi Taldeak G" H-eko ibilbidea 7 etapetan egiteko ibilaldiak antolatu ditu maiatzan. Etapa hauen egutegia honako hau izango da:

**Maiatzeren 7a:** 1. etapa, Beasain - Zumarraga (20 km).

**Maiatzeren 8a:** 2. etapa, Zumarraga - Azpeitia (33 km).

**Maiatzeren 14a:** 3. etapa, Azpeitia - Tolosa (25 km).

**Maiatzeren 15a:** 4. etapa, Tolosa - Larraitz (20 km)

**Maiatzeren 21a:** 5. etapa, Larraitz - Lizarrausti (17 km)

**Maiatzaren 22a:** 6. etapa, Lizarrausti - Otzaurte (19 km)

**Maiatzaren 28a:** 7. etapa, Otzaurte - Beasain (34 km)

Irteera hauetan parte hartu hahal izateko derrigorrezkoa da mendiko federatu txartela izatea. Interesa duten guztiek, informazio gehiago jaso edota izena eman nahi dutenek 'Ehunmilak'-ek Jose Miguel Iturrioz kalean duen lokaletik pasa daitezke, apirilaren 28 eta maiatzaren 5an 18:30etatik 20:30etara; edo nahi izanez gero, egun eta ordutegi berean telefono zenbaki honetara dei dezake: 646 855 620. Informazio gehiago [www.arrastaka.net-en](http://www.arrastaka.net-en).

## Lazkao

### Liluratura saioa, Arantxa Urretabizkaiarekin

Liluratura saioaren barruan, datorren maiatzaren 17an, Arantxa Urretabizkaiarekin izango da hizketaldi saioa. Urretabizkaiaren azken liburua, '3 Mariak' irakurri eta berari buruzko solasean aritzeko aukera izango da, Gerriko txokoa 18:30ean.

**Ikaskide**  
irakaskuntza eta pedagogia

**UDAKO MATRIKULA ZABALIK!**  
ERREPASOA, ERREKUPERAZIOAK  
UNIBERTSITATE MAILA (MU)  
INFORMATIKA IKASTAROA  
IKASKETA TEKNIKAK  
IKASKETA ARAZOAK, IRAKURMENA,  
ULERMENA, ARRETA...  
INGELERA TRINKOA

Joan Iturralde, 5 Beasain  
tel.: 943 160 120  
[www.ikaskide.net](http://www.ikaskide.net)

**ALDANONDO GARAJEA**  
MICHELIN zerbitzu ofiziala

**Gurpil lanak,  
alineazioa,  
aluminiozko llantak**

**Filtroak, olioak,  
engrasea**

**Frenu pastilak, tubo  
eskapeak, bateriak**

**Harezko txorrotadak**



**Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57**

GRAFICAS  
**EGUZKI**  
IN PRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17  
Tel 943 88 94 82  
Faxa 943 88 60 44  
BEASAIN





# Goierri Hartxo

Goierriko haurren aldizkaria 35. zenbakia 2011ko maiatza



**Goierriko Eskola Txikiek  
Gabirian dute hitzordua**





*Iaz zeraindarren txanda zen festa antolatzeko, baina, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan grabaketan parte hartu behar zutela eta Urnietan egin zuten festa.*

Maiatzaren 7an, Gabirian

# Goierriko Eskola Txikien festa

Sei ikasgela edo gutxiago duen eskolari deitzen zaio Eskola Txikia. Lau Eskola Txiki daude Goierriin: Gabirian (48 ikasle), Itsasondon (50 ikasle), Olaberriari (37 ikasle) eta Zerainen (10 ikasle). Eskola Txikien ezaugarri nagusia honakoa da: taldeak txikiak izatea eta adin ezberdinetako haurrak gela berean izatea. Eskola Txikietako ordezkariak diotenez, "gela berean zenbait adinetako ikasleak



**Maiatzaren 7an, Gabirian,  
ospatuko dute  
Goierriko Eskola Txikiek  
aurtengo festa,  
arratsaldeko 4,30etan hasita.**



egonda, harremanak oso aberatsak dira, eta elkarreragina eta kooperazioa era naturalean sustatzen dira”.

### Herriarentzat garrantzitsua

Herri txikientzat oso garrantzitsua da eskola herrian bertan izatea, herriaren nortasuna barneratzen baitzaiei bizitzako lehenengo urteak herrian bertan geldituta. Herriari bizitza eta bizipoza ematen dio eta herritarrak herrian bertan gelditzera bultzatzen ditu, herriarekin identifikatzea lortzen delako.

Gurasoek ere lan handia egiten dute Eskola Txikien inguruan. Eskolako proiektuaren parte sentitzen dira. Eskolaz kanpoko jarduerak ere antolatzen dituzte gurasoek.

Gipuzkoan 26 eskola txiki daude eta elkarte batean biltzen dira. Gipuzkoako Eskola Txikien festa antolatzen dute urtero eta

aurten, Abaltzisketan izango da, ekainaren 12an. Goierriko lau Eskola Txikiek ere harreman handia dute eta elkarlanean, harremanak sendotzeko eta Eskola Txikien garrantzia aldarrikatzeko, urtero, festa antolatzen dute.

### Goierriko festa

Urtero, txandaka, Eskola Txikiak dauden lau herrietako batean egiten da maiatzan Goierriko Eskola Txikien festa. Aurten, Gabiriako Balantzategi eskolaren txanda izan da eta maiatzaren 7rako, arratsalde pasa ederra antolatu dute. Jarraian duzue egitaraua:

**16:30ean:** Herriko plazan, bisitariei ongi etorria egingo zaie.

**Ondoren,** arratsalde guztian zehar, lehaiketak, ‘Pantxika eta Txinparta’ ikuskizuna eta jarduera ugari izango dira.

**Amaitzeko,** askaria izango da.

## ‘Eskola Txikiak geroaren bila’ abestia

Eskola Txikiak badute beraien abestia. Pirritx eta Porrotxekin batera 2008an grabatu zuten Zeraingo haurrek, irakasleek, gurasoek eta Zaldibiako haurrek. Jarraian dituzte ‘Eskola Txikiak geroaren bila’ kantaren hitzak:

Eskola txikiak  
herri ta auzo,  
geroaren bila  
pausorikan pauso.

Batzuetan hobea  
izatea txiki  
Daviden historia  
edozeinek daki.

Txepetxa bera ere  
txorietan txikiena.  
Polit askoa da  
Inbidi(a)rik ez du(e)na.

Eskola txikiak  
herri ta auzo,  
geroaren bila  
pausorikan pauso.

Baserri ta kaleak  
denak loraturik,  
eskola txikiak  
badaude bizirik.

Denok elkar hartuta  
dezagun kantatu  
txikia ez dezaten  
inoiz ezkutatu.


Eskola txikiak  
herri ta auzo,  
geroaren bila  
pausorikan pauso.





## Itzal egokia

Beheko zuhaitzak ondoan 7 itzal baditu ere bakarra da berari dagokiona.



## ZER IRAKURRI?

Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteko  
Irakurketa Mintegia



### Makaleko beleak

**Autorea:** Aldoux Huxley

**Ilustratzailea:** Pep Montserrat

**Itzultzailea:** Josean Sagastizabal

**Argitaletxea:** SM

**Orrialde kopurua:** 72

Makal handi batean bizi dira bele senar-emazteak, adar garai batean. Bertan bizi da ere, enborreko zulo batean, kriskitin suge zaharra. Beleek ez dakite baina, eurak kanpoan dauden bitartean, sugeak arrautza lapurtzen die habiatik. Bele andrea kezkatuta dago. Egunero-egunero arrautza errun berriak desagertzea ez zaio normala iruditzen. Harik eta egun batean... Zortzi urtetik aurrera bakarka eta bostetik aurrera helduak ozen irakurrita.

### Goikoak eta behekoak

**Autorea:** Paloma Valdivia

**Ilustratzailea:** Paloma Valdivia

**Itzultzailea:** Manu Lopez Gaseni


**Argitaletxea:** Pamiela-Kalandraka

**Orrialde kopurua:** 32

Mundua paper batean jarriko balitz, erdian marra bat duela agertuko zen. Marraz gorakoak goikoak izango ziren eta marraz behekoak behekoak. Goiko biztanleek pentsatuko lukete behekoak okerrago bizi direla, itsusiak direla eta arraroak. Behekoek ere berdintsu pentsatuko zuten goikoez... Baina ez; marraz gora daudenak eta marraz behekoak oso antzekoak dira, igualak. 3-99 urte bitarteko irakurleentzat.

## Aurkitu bidea

Zein bide jarraitu behar dute puzzleko bi zatiek elkartzeko?



## Sudokua

9x9-ko laukian hutsik dauden laukitxoak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz, eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

	8		5	7		3		6
1			6		4		2	
2		3			8		5	4
7		2		5				3
	4	8	2	6	3			5
5	3	6			1	4		2
			8			2	3	
	9	5	1		6		4	7
8	2		3	4	7	5		

goierri Hartxoren  
lagunak:

 **IRIZAR**





## Gabiriako neska taldea, 1945. urte inguruan

**Goiko ilaran ezkerretik eskuinera:** Pia Alustiza (Landeta), Pakita Galdos (Etxeberritxo), Felipa Agirrebengoa (Otsategi), Maria Luisa Iruin (Torre) eta Mari Karmen Zubizarreta (Ugarketa).

**Beheko ilaran:** Eusebia Agirrebengoa (Otsategi), Anita Zubizarreta (Ugarketa), Maria Txintxurreta (Txoko) eta Ana Murua (Izarraundi).



**SILVIAMIRASCASASAYAS**  
ODONTOLOGOIA  
KOL. Zko: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87  
SAN INAZIO KALEA, 2  
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



**MUJIKA**  
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94  
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

**PSIKOLOGI KLINIKOA**



**Argi** Jose Ramon Dato Prieto  
Psikologian lizentziatua  
Elkargokide zenbakia: E-2644  
RPS: 420/01

**AURRE ZITA** ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041  
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,  
umeen,  
bikoteen eta  
sexologi  
tratamenduak



**NELSON BARBOSA**  
ERREFORMAK


Gremioen koordinazioa  
tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behea **SEGURA**

Oskarbi Oinetakoak  
Nagusia 34  
Tel 943 881 944  
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak  
Sekundino Esnada 8  
Tel 943 721 976  
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak  
Nagusia 34  
Tel 943 884 104  
Beasain

Oskarbi Oinetakoak  
Erdiko Kallu  
Tel 943 711 804  
Arrasate



**ZUGAZTIBI**  
AHOLKULARITZA



• *Laborala*  
• *Fiskala*  
• *Kontablea*  
• *Juridikoa*  
• *Aseguruak*  
• *Inmueble*  
*ajentzia*


zugaztibi@telefonica.net  
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58  
Faxa: 943 16 15 58  
Domingo Unanue plaza, 5 behea  
ORDIZIA

**EGUERDIZ IREKITA**  
9:30etik 19:00etara  
ostiraletan:  
9:30etik 15:00etara



## BATXILERGOA

- Giza eta Gizarte zientziak
- Zientziak eta Teknologia



- Aukera zabala (bi modalitate, 26 ikasgai aukeratzeko: Ekonomia, Informatika, Teknologia, Psikologia, Grekera, Laborategi teknikak...)
- Orientazio pertsonala eta akademikoa.
- Goi mailako ikasketetarako bide egokia.
- Ikasleen interesa eta prestakuntza premiei erantzun egokia.

IZEN EMATEA: maiatzaren 2tik 11ra

berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoa // laguntzen bideratzea

ugartemendi,6 20200 Beasain [www.beasainip.net](http://www.beasainip.net)

tel: 943 88 07 53



BATXILERGO GUZTIEN KALITATEZKO ESKAINTZA



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA  
BATXILERGOA

maiatzaren 3an 18:30ean, ate irekiak



GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN  
BATXILERGOA

IKASGAI BATZUK  
INGELESEZ  
EGIN DAITEZKE

maiatzaren 2tik 11ra, aurrematrikula epea



ARTE  
BATXILERGOA

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

